

# Emakumeen modura

Agian ez zen horrela gertatu, beharbada asmakizun hutsa besterik ez. Istorioak istorio, gerla, gatazka edo iskanbila ospetsuenetariko bat Troiako hura dugu, Homeroren *Iliada* izeneko narrazio literario hartatik heldu zaigun kontakizuna.

Poema epiko hau egunkari batean argitaratutako berri bat edota epaitegi batean judikatu behar genukeen gertakari bat izango balitz, hau da, bere testuingurutik atera eta gure gaur egungo begiekin aztertuko bagenu, salatu beharreko lehenengo gauza hasierako lege-haus-tearen kausa agertzen zaigu. Kondairaren arabera, emakume bat izan zen haserrebidea. Batzuek diote Helenak bere senarra engainatuz, nahita egin zuela ihes Parisekin Troia aldera; beste batzuek, ordea, Parisek, Troiako erregearen semeak, Menelaoren emaztea bahitu zuela uste dute. Edozein modutan, hara joan ziren greziarrak, Esparta erresumako erregearen andrea berreskuratzeke asmoz. Hona hemen nola emakumea objektutzat hartua izan daitekeen. Batak edo besteek jabetasuna aldarrikatzen dute Helenarekiko. Benetako helburua ez da eskatzen duten ondasuna, hau da emakumea, baizik eta hartaz jabetzeko eskubidea aintzat izatea. Bestela ez litzateke ulergarria izango *Iliada*-n Troia gainditu ondoren eta gerla bukatzerakoan Helenari hain jaramon gutxi egitea. Halabaina, askotan entzuten dugu Troiako gerlan Helena izan zela *casus belli*. Bide honetatik, erantzukizuna emakumeari leporatzen zaio eta eremu hartako heroien pentsamoldea, mitologiaren burbuilan babestuta, akusaziotik salbu gelditzen da. Inoiz es-

katutako adierazpenak ematea noizbait errudunen ezaugarri den bezala, hainbat kasutan zergatik galdetzea ere biktima erruaren partaide egiteko ahalegin bat izaten da, errua elkarbanatzea neurri komenigarria baita errua pisu handiegia denean, batez ere osoa bere lepoetan duenarentzat.

Gure kultur inguruko mitologian emakume gehiago agertzen zaizkigu gerla kontuetan. Beste adibide batek, hau tradizio biblikotik ekarria, Judit izena du. Kasu hau zeharo ezberdina da. Emakume hau, Betuliako biztanle, seme-alaba askoren ama alargun bat zen Asiriako armadak bere hiria konkistatu nahian betuliarrak setiatu egin zituenean. Setioa luzatu egin zen eta bertakoak ahulduak eta ia hiltzorian ego-tera iritsi zirenean, hiriko agintariek asiriarrekin errendizioa negoziatu zuten. Baina Juditek horren berri eduki zuenean, tinko plazaratu egin zen eta indar handiz hartu zuen hitza. Honela, agintariak lotsarazi zituen beren koldarkeriagatik eta proposamen bat aurkeztu zien: Holofernes, asiriar armadaren jenerala, xarmatuko zuen bere emakumezko erakargarritasun erotikoaz baliatuz, ardoa edanaraziko zion eta, mozkortu ondoren, hil egingo zuen. Esan eta egin. Hurrengo egunean, Holofernesen burua moztuta, Betuliako harresiaren goialdean zintzilikaturik erakutsi zuen eta horrek asiriar soldaduak ikaratu eta uxatu egin zituen. Era horretan lortu zuen Juditek gerla amaitzea, emakumezkoenak omen diren armak erabiliz. Dena den, eros ez zen, nire ustez, pasadizo hartan gora eta behera ari zen eragile bakarra.



## Pedro Urquijo

Hezitzailea

Emakumeek duten indarra, neurri handi batean, beste ahalmenetik datorrela deritzot, haonek ere sexualitatearekin zerikusia izan arren. Judit bezalako gizakume batek bere burua horrela eskaintzeko eta erakusten duen eskuzabaltasunaz aritzeko, jokoan jartzen duena bere amatasuna da, oker ez banago.

Bake kontuetan amatasuna oinarrizko gakoa da. Gerla suntsitzaileria den neurrian, amatasuna sortzailea da. Bederatzi hilabete bere sabelean haur bat izan, jasankortasunez erditu eta nekez hazi. Seme bat horrela edukitzen duenak ezin du onartu hura handitzen denean hiltzera bidaltzea, ez eta beste emakumeren semeei bizitza kentzera ere. Ama batentzat hori benetan onartezina da justizia gabekoa den heinean, justiziarako joera baita emakumeek orokorki garatuago duten ezaugarrietako bat. Emakumeak ez du inoiz zauri bat ahazten eta ematen du herrakundea dela hori, baina ez ohi da horrela. Argentinako Maiatzako Plazako Amak, esate baterako, ez ziren herratsuak, baizik eta amak. Judit ez zen azpisuge krudel bat, baizik eta ama. Troiako Helena..., beno hau agian beste era batekoa zen, baina dena dela ere, hari arazoa nola konpondu galdetu izan bazitzaion ez dut uste Troiako gerla gertatu izango zenik, baina inork ez zion eskatu Helenari bere iritzia eta, horren ordez, lurraren semeek egundoko gatazka antolatuz zuten, garbi baitago gizonezkoen ikuspuntutik erakitakoa zela. Ez ote zegoen beste Judit bat Peloponeson bere ahotsa

entzunarazteko? Beharbada ez. Agian, aita-semeak tabernan zeuden bitartean –batek daki Mizenasen eta Espartan, Euskal Herrian bezala, taberna asko ote zeuden, baina gatazka askoren sorreran ardoaren eragina makala ez delakoan nago–, ama-alabak jokoan ziren.

Honi lotuta, euskal kantuen artean badago beste bat aldi berean goxoa eta tristea dena; are gehiago, mingarria esango nuke nik. «*Haurtxo txikia negarrez dago. / Ama, emaiozu titia; / aita gaiztoa tabernan dago / pikaro jokalaria*». Pentsatzen dut ahozko tradizio literarioa mundu baten isla bada, hau beste eredu oso garbi bat dela. Hona hemen emakumea eta gizona elkarri bizkarra ematen, elkarri erasotzen. Eta horra hor ume txiki bat, borroka horretan iraungo duen zuhaitz-ardaska gazte bat. Konponbidea? Boterea eskuratu, baina ez ohizko zentzuan, hau da, ez naiz esaten ari dena konponduko litzatekeela gobernuetako buruak emakumeak izango balira. Beste botere mota batetaz ari naiz eta ez da emakumeentzako erronka, baizik eta gizonezkoentzat. Sehaska kulunkatzen duen eskua mundua bultzatzen duena dela idatzi zuen norbaitek. Bai, baina ez da zuzena jada. Esku bat izan beharrean, hobeto bi izango balira. Sehaskako bi aldeei emakumearen eta gizonaren besoek eutsi arte, ez da bakerik lortuko. Txalupa baten bi arraunak izango balira bezala. Justizia kontu bat da..., emakumeen modura.